

Pasarte honetan, diru sarrerei buruzko informazio guztia adierazi eta azalduko dizuegu.

Hasteko, jatetxe batzuekin eta hortu batzuekin kontaktuan egongo garenez, haiek gu patrozinatzea saiatuko gara. Beste aldetik, guk haiei publizitatea egingo diegu eta bakarrik haien produktu eta elikagaiak erabiliko ditugu. Adibidez, haien logoa edo beste zenbait gauza erakutsiko izango dugu (argitaratzen ditugun argazkietan, egingo ditugun karteletan, eramango dugun arropan...).

Jarraitzeko, sare sozialak erabiliko ditugu. Sare sozialetan, gure bezeroak informatuko ditugu, egingo ditugun ekintzetaz, informazioa berria erakusten eta azaltzen, promozioak jartzen.... Gainera, zenbait berri izatekotan zuzen zuzenean momentuan bertan argitaratuak izango dira eta mezu labur baten bidez adieraziko diegu. Izan ere, webgune bat izango dugu baita ere non informazio egokia, zehatza eta berritua egongo da eskuragarri haientzat nahi dutenean ikusi ahal izateko.

Ondoren, sukaldaritza ikastaroak sukaldari famatuek egingo dituzte, hau da, sukaldari famatuek, bezeroei ikastaroak emango diete, haietatik (hoberenetatik) gehiago ikasteko. Adibidez, Karlos Arguiñano, edo Martin Berasategi sukaldariak izango ditugu.

Azkenik, gure hasierako inbertsiorako kreditu txiki bat eskatuko dugu (nahiz eta sahiatuko gara kreditu hura eskatzen), gainera gure aurrezkiak jarriko ditugu eta patrozinatzaileek diru kantitate bat emango digute (beharrezkoa izatekotan).